

Abertzaletasuna eta praktikotasuna

MARTIN UGALDE



BESTE bidaguru-tze batetan dago Euskal Herria: herri bezala ala partidu bezala jokatu. Orain artean banandu gaituena Estatu guztiahalduna izan bada, orain Europa da. Sentsazioa, betikoa: zatiketako ahulezia etsi. Hau da egiazko azuia. Bidetxurak anitz eta tentagarriak dira, eta Euskadi eraikitze bidea, zaila. Ados nator, noski. Baina, bestalde, abertzaletasuna ez da praktikotasuna. Sabin Arana ez zen hau aldarrikatzen jarri, hala izanez gero ahaztua zegoen dagoeneko. Sarri aurkitu gara herri bezala erabaki zailaren aurrean. Askotan pentsatu dut Espainiako Errepublikak suntsitzekoan leherrarazi zuten altxamenduaren aurrean historiak zer kinketan jarri gintuzten. Geure abertzaletasunaren kontzientzia, Arana Goiri hil eta hogeita hamahiru urtera (1903-1936) egiatan egosten ari zenean, Armadagandik eta Elizagandik joatea errézagotzen gorriska eta arriskugarria zen askatasun bidetik jotzea baino, eta halere gure herri zaharrak 32 urteko gizon gazte baten eskutan lema uztea erabaki zuen. Izan genituen aukera gaitzetsi zutenak, eta oraindik ozenkiago 40 urteko nekaldi izugarriak iraun zuen artean. Baina ongi erakutsi zuen Euskadik bere borrokaren zentzua, eta Agirre buru zuen Herria ta Europak eta Mundu guztiak ezagutu zuena, eta honek eman zigun garai hartan, eta ematen digu gaur ere, zilegitasuna munduaren aurrean askatasuna berreskuratzeko. Batasunean ezina bada ere, gure arteko tolerantziak egindako puntuetan adostasuna lortuaz!, pausoz pauso. Eta gaurko giroan bide praktikoa nahi duen euskalduna entrega dadila zuzenean Madrilén.

Superrasperraldia

GARBINE UBEDA



SASIFILOLO-GOREN bati akaso jolasa irudituko zaio 'super' aurrizkia hartu eta hitzak osatzea. Niri, berri, jolasa baino, barrabaskeria iruditzen zait. Batez ere, superraren kulturak, Atila baino egoskorrago jarrita, bazterrek inbaditu zituenetik.

Inbasio horren hainbat adibide. Mugaren alde batekoek ez dute zertan beldurturik, Boslé super komisiarioak gaitz guztietatik libratzen ditu. Mugaren beste aldekoak super Felipek gobernatzen ditu, eta Arzalluzen laguntza lortzen baldin badu, batzuen ustez, hobe. Aitortzea kosta egiten baldin bazaigu ere, ia denori gustatzen zaizkigu Super Garcíaren superlotsagabekeriak. Erosketak normalki supermerkatuetan egiten ditugu, dena eskuberan jartzen baitigute, eta bertan, aukerara, superzuritasuna ziurtatuko diguten garbikiariak hobesten ditugu. Inor baztertuta sentitzen baldin bada, egon dadila lasai, Ertzaintzaren superkonputagailua ez baita berarekin ahantziko.

Denetan asaldagarriena, ordea, gure supermanaren kasua da. Super Lopez de Arriortuarena, alegia. Gure jaingo berriaren ospea Nafarroako Super Lehendakariarena bezala pasatuko zenaren esperantzan nintzen. Hura ere ez da makala, zerua gainean erortzeak bakarrik beldurtzen omen du. Baina txapela galdu zuenetik edo Aizpunek anestesiatu zuenetik apal-apal dabil.

Juan Cruz Alliren muskaltzearekin kontsolatuxe nengoen atzo arte. Lagun gaztetxo bati «zer moduz herriko festak» galdetu eta «superguai» erantzun zidanean, superrarekin konforme ez gaudenok garai hobeak heldu arte itxaron beharko dugula esan nion nere buruari etsita.

EL PAIS

Hobe itunarekin

Egunotan Frantzia agian Europako lan eredu agortzen ari dela iradoki dute. Horren aurrean Estatu Batuetakoa agertzen ari da: langabe gutxi baina soldata txikiak, langilearen mugikortasun handia eta gizarte babes urria. Europako modelo Europa eraikitze prozesua itxuratu duen tradizio bikoitzen —sozialdemokrataren eta demokristauaren— funtsezko zatia da eta, horregatik, bere defentsa europar proiektuarekin identifikatu egiten da. Baina egia da lan merkatua baldintza berriei —besteak beste, kostu txikiagoz gauza bera ekoizteko kapaz diren herrien konkurrentziari— egokitu gabe nekez gainditu ahal izango dela konkurrentzialtasunaren narriadura, langabeziaren hazkunde azkar baino az-

HEMEROTEKA



karragoaren atzean dagoena.
EDITORIALA

hori irenstean ilusio handia jarriagatik ere.
EDITORIALA

GALLEGO & REY / DIARIO 16

Strasburg bisitatzen dutela Leo Tindemansen europar bedeinkapena jasotzeko. Beren nazioarteko monopolio demokristaua hain arreta handiz gordetzen zuten jeldikeek berriro ere ikusiko dute nola homologatzen dituzten Aznarren jendeak Internazional Demokristauan.

Gero, presioak etorriko dira zentroeskuineko tarte bera betetz betiere elkarri bizkarra emanez ezin jarrai dezaket bi alderdien taktikak eta estrategiak hurbiltzeko. Hori izango al da batasun nazionalista?

J. IRATZAR

EL MUNDO

Tontoa ituna
izenpetzen ez duena

Egia da adostasunaren bilaketak erraztu egin deza keela politika zehatz baten aplikazioa, baina horren arrakasta edo porrotak ez dauka zerikusirik bera onartzeko prest daudenen kopuruarekin, zuzena ala okerra izatearekin baizik. Medikazio oker batek ez du inoiz benetan sendatuko, gaixoak

egin

Oinarrizko ametsak

Eguneroko errealitatearekin bat ez datozen ametsak. Izan ere, errealitate hori, gaur Madrileko aretoetako eta moncloar bileretako itun eta lausengatzeei esker nolabaiteko protagonismoarekin hasi duen aste hau, oso gogorra egingo zaio EAJri ikusten duenean PPK Euskal Herrian dituen diputatuak

LUZENDARIARI

Txofre kaleko izenaren aldaketaren erabateko gaitzespena

Ordoñez, Larrañaga eta Beloki jaunak:

Txofre kaleko auzolagunok ez dugu nahi bere izen-aldaketa.

Ordoñez jaunak esan duen bezala, badago dagoeneko enparantza bat Txofre izenarekin; hala ere eta kontuan izanik badaudela enparantza eta kale batzuk izen berarekin: Easo Kale/enparantza, Usandiazaga Kale/enparantza, Zubieta Kale/enparantza, San Marcial Kale/enparantza... eskatzen dugu Udalak egin eta Ordoñezek, Larrañagak eta Belokik sinatutako proposamena onartzea ez dadila.

Aipatutako kale eta enparantzak el-

karren ondoan daude. Txofre kalea Txofre enparantzetik hain urrun dago errakuntza garrantzitsuak sortzeko?

Ekainak 9 irati saio batean, Ordoñez jaunak esan zigun proposamenaren aurka lortutako sinadurak aurkez genitzan: Bi egun besterik ez dugula izan horretarako, 520 sinadura lortu ditugu. Gutxi iruditzen zaizu?

Jaunak: Kontuan izan ezazue auzolagunon eritzia, afektatuak geu bait gara.

MARIA ANGELES CENIZOS
Donostia

Eibarko saihebidia

Joan den ekainaren 16ko EGUNKARIAN Eibarko saihebidearen inaugurazioaren berri eman zenuten.

Berri neutral eta aseptikoa eman zenuela irudituko zitzaizuen agian, kolore jakinik gabea: 'ilustraziño' handirik ez da behar ordea ustezko kolorerik eza ere kolore bat dela jakiteko.


Ez duzu ematen saihebidetako horren aurkako protesta-ekintza eta mobilizazioen berririk batere; soil-soilik trafikoa 'arinduko' omen duela, inaugurazioetan esaten diren hitz zuri ederrekin geldituz. Aurrerapenaren hondamendiak ez dira Leitzaranen bukatzen.

Azkenik, esan behar dizuet Eibarren ez dagoela 'Geltokia kalerik', baizik eta kale horren izen jatorria Estaziño kalea dela, saihebidetako bedekatu horrek behin-betiko hondatu nahi duena, hain zuzen.

E.K.O.

Eibar (Gipuzkoa)

GAIA JARRITA



Barcelona

Madrilek gaur arte txit bide erraza, baina Tenerifek hausti dio ratxa. Hargatik irten da irabazle Barça. 'Buitre' ere ez da xoxotikan pasa... lastima tartean dagoela Lasa!

RUFINO IRAOLA

Egunkaria

Batzorde Patekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



OJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: IÑAKI URIA

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTXEL OTAMENDI

Zuzendariordea: LUZIEN ETXEHARRETA

Zuzendari Komertziala: JUAN INAZIO HARTSUAGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: MARI JOSE SARASA

Espainiako Publizitatea: PUBLICITAS
Capitan Haya 1 2.a 28020 Madrid ☎: 91 555 11 01 / Faxa: 91 556 29 29

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna. 16-1. / 20010 Donostia ☎: 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. leher. / 01005 Gasteiz ☎: 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuna. / 48002 Bilbo ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta kutxatila. / 64105 Baiona ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11